



ZALDIBIAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN** **ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzorua izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Azkoitiako lurzorua eta ondasun higiezin hiritarren lurzorua eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:

- **Zaldibiako hiri antolamenduko arauen aldaketa, zenbait eremuei, urbanizagarria ez den lurren araudia eta katalogoari dagokiona.** (2008 ekainaren 17an Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartua eta 2008/7/28an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).



- **Zaldibiako Ibarguren Azpi 8. hirigintzako esku hartze areari eta 14. Hirigintzako Esku Hartze Arearen alboko Espazio Libreen Sistema Orokor berriaren mugaketari dagozkien hiri antolaketako arauen aldaketa.** (2009ko martxoaren 17an Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartua eta 2009/6/22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- **Hirilur lurraren muga aldatzen da.**
- 2.- **011, 031eta 601 zona katastralen mugak aldatzen dira.**

I. ERANSKINA

Hirilurraren mugatze plano.

II. ERANSKINA

Zona katastralen plano.